



Udaleku Irekiak eta Kirol Udalekuak

Guraso eta tutore agurgarriok:

Udaleku Irekiak (3 eta 10 urte) eta Kirol Udalekuak (11 eta 12 urte) antolatzen ari gara. Egoera berezi honetan, ez dakigu uztailean egiten diren programa hauek martxan jartzeko aukera izango dugun, baina baimentzen badute guk dena prest eduki nahi dugu.

Apirilaren 20tik 28ra izen ematea zabalduko dugu. Zuen seme-alaba Hernaniko ikastetxe batean eskolatua dagoenez, bi bide hauek izango dituzue izena emateko:

- Ikastetxeak banatuko duen inprimakia bete eta ikastetxera bidali.
- Hernaniko Udaleko Haur eta Gazteria Arloa deitu: 605715607. (10:00-13:00)

Oharrak:

-Inprimakiak aukera ematen du sinatzeko. Sinadura ezin baduzue egin bere horretan utzi eta guraso bileran edota udalekuetako lehen egunean sinatuko duzue.

-Kirol Udalekuen kausan, ez egin ordainketarik udalekuak egingo direla baieztatu arte. Hau da, udaletik jarriko gara izen eman duzuenekin harremanetan ordainketa noiz egin adierazteko.

Mila esker,

Hernanin, 2020ko apirilaren 7an
HERNANIKO UDALA
HAUR ETA GAZTERIA ARLOA

